

GARIZUMAKO II. IGANDEA (C)

Otoitza

Jainko Aita guztiz santua,
zeure Seme maiteari entzuteko esaten diguzu;
emaiozu gure espirituari zeure hitzaren janaria,
gure sinesmen begiak argiturik,
pozez ikus dezagun zure aintza.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Gn 15, 5-12. 17-18

*Jaungoikoak elkargo egiten du
Abraham leialarekin.*

Genesis liburutik

Egun haietan, Jaunak kanpora aterarazi zuen Abran, eta honela esan zion: «Begira zerura, eta konta itzazu izarrak, ahal baduzu». Eta gainera esan zion: «Horrenbeste izango dira zure ondorengoak». Abranek sinetsi zion Jaunari; eta Jaunak aintzat hartu zion zuzentasunerako. Eta esan zion: «Ni naiz Jauna, Kaldeako Ur herritik zu atera zaitudana, lurralde honen jabe egiteko». Eta Abranek: «Jainko Jauna, nondik ezagutuko dut, jabe izango naizela?»

Jainkoak erantzun: «Ekar iezazkidazu, hiru urteko behi bat, hiru urteko ahuntz bat, hiru urteko ahari bat, usapal bat eta usakume bat». Ekarki zituen Abranek guzti hauek eta erdibitu egin zituen, eta erdi bakoitza bata-besteari buruz ipini; baina hegaztiak ez zituen erdibitu. Hegazti harrapalariak sarraskira zetozen, eta Abranek uxatu egiten zituen.

Eguzkia sartzean, Abran lo haundiak hartu zuen, eta ikara haundi bat erori zitzaion gainera.

Eguzkia sartu eta ilun-beltz egin zenean, labe bat agertu zen ketan eta zuzi bat sutan, zati haien artetik igarotzen. Egun hartan Jaunak elkargo egin zuen Abranekin, esanez: «Zure ondorengoei emango diet lurralde hau, Ejiptoko ibaitik Eufrates ibai haundiraino».

ERANTZUN SALMOA: Sal 26, 1. 7-8ab. 8c-9. 13-14

R/. Jauna dut argi eta salbamen.

Jauna dut argi eta salbamen, nork ni beldurtu?
Jauna biziaren babes, nork ni izutu? R/.

Jauna, nire deiadar-hotsa entzun ezazu,
erruki zakizkit eta adi nazazu.
Zuk esana bihotzean dut entzuten:
«Bila ezazue nire aurpegia.» R/.

Zure aurpegi bila nabilkizu, Jauna,
ez niri ezkuta aurpegi hori,
zure zerbitzari hau haserrez ez bazter utzi.
Laguntza zaitut, ez nazazula zapuztu,

Jainko, nire salbamen, eskutik utzi ez nazazu. R/.

Jaunaren ontasuna ikusi ustean
nago bizien lurrean.
Itxaron Jaunagan, eta kemen izan,
bizkor bekizu bihotza, eta itxaron Jaunagan. R/.

II. IRAKURGAIA: Flp 3, 17–4, 1

Kristok bere gorputz aintzatsuaren antzeko egingo gaitu.

San Paulo Apostoluak Filipotarrei

Senideok: [Izan zaitezte guztiok nire antzeko, eta begira niregan duzuen eredura dabiltzanei. Asko baitira —askotan esan dizuet eta orain negarrez diotsuet— Kristoren gurutzearen etsai bezala dabiltzanak: haien azkena hondamendia da; haien Jainkoa, sabela; haien harrokeria, beren lotsarrietan dago; lurreko gauzetan, haien egarria.]

Guk zeruan dugu geure herri; eta itxaron, handik itxaroten dugu Salbatzailea, Jesu Kristo gure Jauna. Berak aldatuko du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren antzeko eginenez, gauza guztiak menperatzeko duen indarrez.

Horrela, bada, ene senide maite eta bihotzestuok, nire poza eta nire koroa; iraun ezazue horrela Jaunari leial, ene maiteok.

EBANJELIOA: Lk 9, 28b-36

Ebanjelio aurreko txatala: lk. Lk 9, 35

V/. Hodei distiratsutik Aitaren ahotsa entzun zen:
«Hau da nire Semea, nire Aukeratua.
Entzuoizue».

*Otoitzean ari zela,
Haren aurpegia antzaldatu egin zen.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek Berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendira igo zen otoitz egitera. Otoitzean ari zela, Haren aurpegia antzaldatu, eta Haren jantzia zuri dizdizari egin zen. Honetan, bi gizon Harekin hizketan ari ziren: Moises eta Elias ziren, aintzatan agertuak; eta Hark Jerusalemenean jasan behar zuen heriotzaz mintzo ziren. Pedro eta lagunak logalez puskatzen zeuden; baina esnatu ziren eta Jesusen aintza eta Harekin zeuden bi gizonak ikusi zituzten.

Hauek Harengandik aldegerakoan, Pedrok esaten dio Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Egin ditzagun hiru txabola: bata Zuretzat, bestea Moisesentzat, eta bestea Eliasentzat». Ez zekien zer esaten zuen ere.

Hau esaten ari zela, hodei bat sortu zen eta estali egin zituen, eta hodeian sartzean beldurrak hartu zituen. Hodeitik ahots bat entzun zen: «Hau da nire Semea, nire Aukeratua. Entzuoizue». Ahotsa isiltzean, Jesus bakarrik zegoen.

Ikasleak isilik egon ziren, eta egun haietan ez zioten inori esan ikusitakorik ezer. Sinesten dut esaten da.

Oparigaien gainekoa

Eskaintza honek, Jauna, gure bekatuetatik garbi gaitzala,
eta zure zerbitzarien gorputz-arimak santu egin,
Pazko jaiak ospatzeko gai izan gaitezen.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Eukaristia honetan zure Semearen gorputza hartu dugunok
eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
lur honetan gaudela
zeruko ondasunen jabe egin gaituzulako.
Jesu Kristo.